


geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27

UDAN ZER?




Zuaza ehundaka haur eta gazteren topagune



Bingen 
Mendizabal
bizitza osoa
zinema eta
musikari
eskeinia

Alaves taldearen
alde izkutua 



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA	Espainia plaza, z/g	16 13 37	16 13 60
	GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK)	Espainia plaza, z/g	16 13 44	
	GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA	Espainia plaza, z/g	16 13 30	
	PERTSONAL SAILA	Espainia plaza, z/g	16 11 41	16 16 53
	IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g	16 13 20	
BULEGO TEKNIKOAK	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA	Dato, 11	16 11 87	16 11 88
	ERROLDA ETA SOLDADUTZA	Dato, 11	16 11 06	
	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA	Dato, 11	16 16 68	
	ZERGEN GESTIOA	Dato, 11	16 11 33	
	INGURUGIROA	Dato, 11	16 11 20	
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)		Fray Zacarias	16 12 16	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI	Urriak 12 kalea, z/g	16 17 40	
	LANDATXO	Santa Maria kalea, 4	16 16 82	
	IPARRALDE	Zuberoa plaza, z/g	16 17 60	
	ABETXUKO		24 47 14	
	ARIZNABARRA		13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK-KULTURA		16 12 31	
	BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			13 36 91	



Zuzendaria:

JOSU KINTAS

Erredakzioburua:

XABIER ZABALETA

**Erredakzio-
batzordea:**

LEIRE LOPEZ DE
ABERASTURI

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

Itzultzailea:

IÑAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

IÑIGO SARASOLA

Marrazkiak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUAN JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E.
(ZUBILLAGA, OÑATI)



Aukera bat gazteontzat

dute.

- Eta, ze axola guri!

- Bada, entzun ezazu. Gure elkartera txosten bat bidali digute eta zera dio: guk bertso-afari bat antolatuz gero, beraiek prest daudela afari truk bertsolariak jartzeko.

- Nola esan duzu?

- Guk afaria prestatu eta beraiek bertsolariak jarri. Ez da hain zaila ulertzeko, ezta?

- Baina zein bertsolari!

- Arabako bertsolari gazteak. Arabar bertsolaritza, horrela, saio horien bidez pixka bat altxa genezake. Nork daki! Gure bertsolari gazteei saioak emanez gero, euren maila igoko dute eta, behar bada, bihar txapeldunen bat izan genezake...

- Txapeldun, txapeldun... Beno, beno, Egaña ekarriko dugu iaz bezala eta gazte hauek txapeldun direnean entzungo ditugu!

- Saiorik gabe ez dira urrutira joango baina. Horregatik, nire ideia honako hau litzateke: Araban bertsolaritza zuzpertzeko giltza beraiek dutenez, gazteei aukera bat ematea.

ZIGOR ENBEITA
BERTSOLARIA

- Kaixo, Txomin!

- Aupa, Manu!

- Aizu, Txomin, ba al zenekien Araban bertsolariak daudela?

- Bai. Jon Maia, Igor Elorza...

- Ez, ez, bertakoak, arabarrak!

- Hori..., hori... ezinezkoa da!

- Ba, bai, begira: orain dela gutxi Arabako bertsolari gazteek topaketa batzuk egin dituzte Barrian eta hogeiren bat bildu dira Laudiokoekin kontatu gabe. Hauek joan balira berrogeiren bat edo elkartuko lirateke.

- Eta zer egin dute Barrian, bada? Fijo jan, edan eta lo!

- Hori geuk ere egiten dugu! Zera da, lantalde bat sortu dute Arabako bertsolari gazteek bertso saio gehixeago izan ditzaten eta horrela euren maila hobe dezaten. Honez gain, bertso eskolak indartu nahi dituzte eta datorren urteari begira Arabako Bertsolari Gazteen Eguna ospatuko

gasteizko euskaldunon aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:



6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92

GEU GASTEIZEK ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzikizunik



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

geugasteiz aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

ZKIA: _____ Pisud: _____

KALEA

Eguzkiaren gazti-goxuak

EGUZKIAREN HASIERAN, azal beltzarana izatea ez zetorren bat garaiko estetikarekin. Garai haietan, azal zuria zegoen modan. Gure gizaldiaren amaierako urte hauetan, ordea, azal brontzeatua indarrean dagoen osasun eta estetika ereduarekin bat dator. Honez gero, ezagunak ditugu eguzkiaren mesedeak eta baita berak sortu ditzakeen kalteak. Eguzkiaren izpi ultramoreen eraginez, D bitaminaren ekoizpena gertatzen da azalean eta hori garrantzitsua izaten da, besteak beste, errakitismoa (hezurretako gaitza) ekiditeko. Dena dela, izpi ultramoreen ekintzaz azaleko minbizia, zimurrak eta beste zenbait kalte ere ager daitezke. Udaro agertzen zaizkigun gaiak ditugu hauek: ozono-geruzaren "zuloa", solarium-ak, dermatologoaren iritziak, azala babesteko kremak...



JUANTXO OLIVENZA irakaslea

- 1.- Gustokoa dut moreno egotea baina horretarako ez da beharrezkoa solarium batera joatea.
- 2.- Medikuek diotenez eguzkia hartu behar da baina, beti ere, kontrolpean.

*Brontzeatua egotea gustoko al duzu?
Solarium batera joan al zara inoiz*

Osasungarria ote da?

mintzo

Bertsoak

bertsolari gazteok

Duela gutxi sortu da Araban bertsolarien taldea. Gazte multzo bat bildu gara ta badugu guban fedea gure abilezia plazaratzeko aukera bat eskatzea hori da gure legea talde hontako xedea. Gazte bazara tipo jatorra ta pixkat lotsagabea nahiko bazenu izan zitezke talde hontako partaidea



EGILEA:
Luis San Pedro



Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan.

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



KARLOS IZQUIERDO
tabernaria

1.- polita da beltzaran egotea, baina ez dut gogoko eguzkitan aritzea. Solariumera joaten direnei sufritzea gustatzen zaie.
2.- Orain diotenez, ez omen da osasungarria eguzkia hartzea. Ikerketen arabera ez litzateke gehiegi hartu behar.



NATXO PRESUMIDO
tabernaria

1.- Eguzkia edozein lekutan har dezakezu eta solariumera joatea dirua alferrik xahutzea dela iruditzen zait.
2.- Gehienek hartzen duten bezala hartzea oso kaltegarria izan daiteke, gainontzerakoan, ona dela uste dut.



NATALIA KORRAL
ikaslea

1.- Nahiz eta brontzeatua egotea atsegin dudan, eguzkirik ez hartzea nahiago dut. Ez naiz inoiz solarium batera joan. Tontakeria galanta da.
2.- Ez dakit ona ote den, baina gero eta kanpaina gogorragoak egiten dituzte eguzkiaren arriskuaz jabetzeko.




LOURDES DEL OLMO
ikaslea

1.- Beltzaran egotea ez dut gustoko eta, gainera, eguzkia hartzen dudan bakoitzean gorri-gorri jartzen naiz.
2.- Nahiz eta D bitamina ugaritzeko ona izan, kontrolpean hartzea komeni da bestelako kalterik ez sortzeko.



ANA M. MESAS
auxiliarra

1.- Kolore ona izateko eguzkia hartzea primeran dago, baina poliki-poliki hartu behar da. Ez nintzateke solariumera joango.
2.- Osasunarentzat ona delakoan nago, baina krema edo ukenduren batekin azala babestea beharrezkoa da.



atxapelketa



argazkia non?

Kaixo lagunok! Arabari buruzko galderak asmatzen buruari hainbeste ekin ondoren, imaginazioa amaitu zaigu. Zer deritozue aurrerantzean argazki zaharren

a

inguruko informazioa bidaltzera gonbidatzen bazaituztegu? Noski, sariak banatzen jarraituko dugu

b



Gasteizko zein kaletan aterata daude 'a' eta 'b' argazkiak
Mikeldi Zinemen eskutik azken estreinuak ikustera joan zaitezke

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak automatismoak girotzeko musika eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2- 7. pabilioia • Tfnoa: 943 -70 08 95
Faxa: 943-10 85 47 20600 EIBAR

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

Herri erakundeak eta funtzionarioak

JOAN diren egun hauetan, komunikabide guztiek edo gehienek, beren albisteetan Arabako Foru Aldundiak funtzionarioak hurbil-hurbiletik kontrolatzeko detektibeak akuratu dituela azpimarratu dute.

Albiste honen arabera zenbait pentsakizun etorri zaizkit burura. Lehendabizi, behar bada, ez arrazionalki sentimentalki baizik zera pentsatu dut: nola har dezake horrelako neurri bat Herri Erakunde batek eta bereziki Diputazioak! Nork asmatu eta praktikan ipini du ulertezina den erabaki hau!

Pixkatxo bat pentsatu dudanean, arrazionaltasunez, lerro hauek idaztea etorri zait burura. Langile publikoek ez dute detektiberik behar, gure legeek hainbat ahalmen jartzen dituzte politikoen eskuetan. Erabili besterik ez dago! Edo ez



zen benetako neurririk hartu nahi eta espektakulua bilatu nahi izan da? Ez deritzot batere egoki, horrela baldin bada, eta ez dut nahi susmo hori indartzerik. Herri langileek besteek bezala, edo behar bada gehiago, beren obligazioak bete behar dituzte, baina agintariak horretarako behar diren neurri egokiak hartzen jakin egin behar dute: soldata politika egoki bat, motibazioa sortuz, formazioa plangintzan eta abar. Eta baita zigorra ere komeni eta egokia denean.

Alberto Ansola

Euskaldun bat Ar

AZKEN hilabeteetan lan talde bat eratu da Gasteizen Araba osorako izango den euskal irratia bat sortzeko asmoarekin. Momentuz, ekimen hau aurrera ateratzeko gogoia baino ez da existitzen, baina inoiz Araba euskalduna izatea nahi badugu urrats hau ematea behar-beharrezkoa dela uste dugu.

Euskararen egoera Araban pixkanaka-pixkanaka aurrera egiten ari den arren (B eta D hezkuntza ereduak hazkundeak lekuko), oraindik bide luzea egin behar dugu Araba euskaldun arte. Eta bertan kokatzen dugu Arabarako irratia euskaldun baten proiektua: euskara bizitzako arlo guztietan presente egotea, are gehiago hizkuntza batentzat hain garrantzitsua den komunikabideen alorrean.

Araba irratia euskaldun priorik ez duen herrialde

bakarra da. Iparraldeko herrialdeek emisore bana dute: Gure Irratia (Baiona), Irulegi Irratia (Donibane Garazi) eta Xuberoko Boza (Maule). Gipuzkoan irratia euskaldun antz dago (besteak beste, Herri Irratia, Segura Irratia, Arrate Irratia, Arrasate Irratia, e.a.), Bizkaian antzera gertatzen da (Bizkaia Irratia, Durango Irratia,...) eta Nafarroan, halaber, badira ere euskara hutsean emititzen duten irratia batzuk: Euskalerrria Irratia, Xorroxin Irratia, Karrape Irratia, e.a. Arabak arlo honetan duen gabezia oztopo handia da euskararen egoera normaltzeko; komunikabideak orokorrean eta irratia zehazki, garrantzi handikoak baitira euskararen erabilera gizarteratzeko.

Egia da Araban euskara hutsean emititzen duen Euskadi Irratia entzuten dugula, baina emandegi



KIROLDEGIA

CENTRO DEPORTIVO

C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardiobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

**ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-
girotua • Baloi anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoa,...**

Un Irrati abarako

honek Donostiatik bertatik igortzen duenez bere seinalea, zenbaitetan halako urruntasun sentimendua izan dezakegu. Arabarontzat interesgarriak izan daitezkeen hainbat gertakizun eta errealitatek ez du euskaraz zabalpenik izaten askotan (besteak beste, kultura, kirol, udal eta politika munduko gora-beherak). Horixe litzateke, beraz, Arabarako irrati eskadunak funtsezko ezagarriztat izan beharko lukena: informazio lokalean oinarriturik egotea.

Ezinbestekoa deritzogu, orobat, gizartean onspen zabala edukitzeari, oraindik jaiotzeke dagoen irrati honek etorkizunik izan behar badu behintzat. Era honetan, edozein talde ekonomiko edota politikorengandik aparte, irratiak berezko bizitza izango luke bere helburu nagusiaren bila aritzeko: Araba euskalduntzen lagun-tzea.

Ea, laster, zazpigarren alaba izateari uzten diogun!

Oraindik proiektua mamitu gabe dago, hasi besterik ez gara egin. Horregatik lanerako gogoia, ideiak edo iradokizunak egiteko prest dagoen edonor ongi etorria izango da irailean osatu nahi dugun lan taldean parte hartzeko.

Elkarlan zoragarria izan daitekeen honekin hasteko, lehendabiziko aldiz zuen laguntza eskatuko dizuegu. Irrati euskaldunaren ekimenak oraindik ez du izen jakinik eta, behar bada, zuri, irakurle, bururatu zaizu zerbait. Gainera izen onenarentzat saria izango da. Beraz, Arabarako euskal irratiarentzat izenen bat proposatuko al zeniguke?

*Araba Irratia
Egitasmoa*

Egia ote?

PRENTSAN irakurria da eta litekeena da prentsaren kontu interesgarri horietako bat izatea, inoiz gauzatzen ez diren horietarikoa.

Hainbeste urtetan ezagutzen ditugu gure kale eta inguruetan agente txapelgorriak eta euskararekiko aurrera pausorik ez diegu somatu. Orain, ordea, kolpe-
ra, Lakuako agintariek Ertzaintza euskalduntzeko asmoa azaldu omen dute. Orain arte izan duten jarreraren aurkako hausnarketaren bat egin ote dute? Edota Atutxa jauna Euskal Herrian bizi dela konturaru?

Eta prozesu hori aurrera eramateko, Arkaute BARNETEGI bilakatuko omen dute. Hala bedi! Kuartela baino erakargarriagoa eta baliagarriagoa litzatekeela uste dut.

Baina itxura guztien arabera Ertzaintzako talde sindikalak plangintza horrekin ez omen datoz bat. Batzuek aztertu gabe dutelako, eta besteek euskara ikasi beharra ez dutelako garrantzitsutzat jotzen. Irailean jarriko omen lukete abian.

Ea azkenean Cuerda jaunen Euskal Ordenantzekin

gertatzen ari dena edo egin nahi dena bilakatzen den asmo honekin ere: plangintza "deskafeinatu" batean bukatzea dena.

Sarritan esan dugu ozenki gainera, Ertzaintza Euskal Herriko polizia baldin bada, EUSKALDUNA behar duela izan. Lotsagarria baita izen hori izan eta euskara jakin gabe kaleratzea, erdara hutsesan.

Esaera zaharrak dioen bezala: "Hobe da berandu inoiz ez baino".

Ea egia den eta euskaldunok euskaraz jarduteko dugun eskubidea errespetatzen diguten. Izango ote da!

Abel Enbeita



EL
BAR
Kutxi

e
g
u
n
e
k
a
o

EZ GALDU TRENA !

matrikula zaitetz !

Jose
Peru 8 Mardones 8 Arana 30
22 60 50 26 35 40 25 24 00

izena eman AEKni!

<ZAILA DA
EUSKALDUN
HELDUAK
GEUREGANATZEA>

Maribel Diaz

Nor da?

- Beti Bagaren, Gasteizkoa zelakoan geunden. Gure usteak ustel, ordea, behin berriro. <Barakaldon jaio nintzen, 1.970eko urtarrilaren 14ean>. Larrabetzun zen jaio orduko eta Iurretan hazi zen hiru urte zituenetik. Bertan du oraindik familia eta bertan da Maribel ere astebururo.
- Kaprikornio da fedegabea. <Ez dut irakurtzen horoskoporik. Inguruan besteren batek irakurtzen badu, orduantxe; nirea irakurtarazten diot. Ez diot kasurik egiten. Dena den, uste dut kaprikornioak burugogorak garela. Eta horrela bada, arrazoia dauka>.
- Majisteritza ikastera etorri nintzen, gustatu zitzaidan eta bertan geratu nintzen>. Orain dela zortzi urteko kontuak omen dira horiek. Egun, Bagareko arduradun ari da, eta ikastoletan, tailerretan. <Antzerkia, marrazkia, egurraren lantzea eta horrelakoak>.
- Iurretatik bertara ikasi zuen euskaraz, Durangon. Han ez zen erraz izan. <Ezer ez nekien, baina nire lagun batzuek euskaraz hitzegiten zuten. Eta amak ere esaten zidan: "Euskaraz ikasi behar duzu!". Bazekien euskara beharko nuela>. Iurretan zein Durangon jardunagatik euskaraz ikasten, Gasteizen loratu zen. <Hona etorri nintzenean askoz gehiago ikasi nuen. Hona etorri eta euskaltegira joan nintzen zuzen-zuzenean>.
- Pandero jotzea gustatzen zaio, trikitixa. <Eta bizikletaz ibiltzea, mendira joatea, eta egunero egiten ez diren gauzak egitea>. Zertzuk, adibidez? <Puenting egin dut orain dela gutxi. Eta Lezen, rapel egiten. Eskalada ere egin izan dut... Normalean egiten ez direnak gustatzen zaizkit>.
- Honenbestean, esan beharrik ere ez dago: Maribel Diaz Trikitixa Kontrairo Taldeko partaidea da.



Bagare, Kontrairo, ikastolak... denbora librerik bai?

Nahi baduzu ateratzen duzu denbora. Oraintxe, ez dut behar. Gustora nago egiten dudanarekin. Ez dut lan bezala hartzen.

Zure bertutea?

Baiezkorra naizela. Beti alde ona bilatu ohi dut.

Famatu adiskide baten izena eman behar bazenu?

Zaila da. Jende asko ezagutzen dut eta denak famatuak iruditzen zaizkit. Gainerakoan, ez nuke jakingo esaten.

Zer eskatzen du herriak?

Amnistia, adibidez.

Zer eskatzen du Bagarek?

Euskararen udal ordenantzak, baina benetakoak.

Noiz arte Cuerda?

Gutxi arte espero dut.

Zer eskaintzen dio Bagarek Gasteizko euskaldunari?

Euskara kalean ere erabiltzeko aukera. Eta bere asmoak aurrera eramateko modua.

GEU ala Bagare?

Bagare. Bagare eta GEU.

Bihotza betean, zer iruditzen zaizu GEU?

Egia esatekotan, iruditzen zait ez dela jendeagana hurbiltzen; urrun samar ikusten dut. Beste aukera bat da.

Nola bereganatu behar dituzte euskaldun larriak - pertsona helduak-,

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

Eguneroko Menua

Betiko kazuelatxoak



HezoAmerikako jantziarik ederrenak

PINTORERIA
kalea • S. Franciscoren kantoian

euskararen aldeko mugimenduek?

Zaila da zaharrak gureganatzea. Adin guztietakoekin saiatu behar dugu baina zaharrek... Eurek zer eskatzen duten jakin behar dugu lehenengo.

Euskaraz bizitzerik badago Gasteizen?

Giroa aurkituz gero, bai. Nork bere giroa aurkitu behar du, ordea.

Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria ala Vitoria-Gasteiz?

Gasteiz, besterik gabe.

Gasteiz ala Iurreta?

Biak. Astebururo joaten naiz Iurretara; lagunetara, ama ikustera... Behar dut. Izan ere, lekuz aldatzea gustatzen zait niri. Erabat Iurretan banengo, Gasteiza etortzeko amorratzen egongo nintzateke. Erabat hemen banengo, Iurretara joateko desiratzen.

Jeniorik ba al duzu?

Txikia. Umore oneko nago gehienean.

Egunkariren bat?

Euskaldunon Egunkaria. Eta Egin.

Irratia ala telebista?

Irratia. Hala Bedi, gehienetan. Edo Euskadi Irratia. Pizten dut eta, batzuetan, zer ari den ere ez naiz konturatzen.

Zinezalea?

Bai, baina azkenaldian ez naiz joan. Ez naiz gogoratzen zein pelikula ikusi nuen azken.

Pelikula onik?

On-ona, "El Piano".

Txikitako oroitzapenik?

Udalekuetara joaten nintzanean. Kostata joaten nintzen "urrunera" -Errioxara-, eta beldurrez. Itzultzerakoan, aldiz, beldurrez joan nintzela baina oso ondo pasatu nuela pentsatzen nuen.

Gizarte arloan, zer aldatuko**zenuke?**

Aberatsak pobreen lekuan jarriko nituzke, eta pobreak aberatsenean. Balantzea egingo nuke. Eta jendearen pentsamoldea ere aldatuko nuke: irekiago nahi nuke jendea.

Irakurzalea?

Gustatzen zait baina gutxi irakurtzen dut. Horrek esan nahi du beste gauzak baino gutxiago gustatzen zaidala. "Kutsidazu bidea, Ixabel" irakurri dut azkena. "La mujer habitada" hasi nuen baina ez nuen bukatu. Han daukat oraindik, irakurtzeko.

Zer nahiko zenuke jendeak zutaz esatea zu hil eta gero?

Nahiago nuke esatekoak bizirik nagoela esatea.

Zer zinateke Bagareko arduradun-Kontrairoko musikari-ikastolako irakasle ez bazina?

Seguru, Salamankan egongo

nintzateke psikologia ikasten. Horixe zen nire asmoa.

Gasteizen biziko ez bazina?

Salamankan. Edo Donostian. Psikologia ikasten, dudarik gabe.

Zein da gobernuen funtzioa?

Gobernuek saiatu beharko lukete guztion nahiak betetzen, guztion konformidatea lortzen.

Euskal Herriak duen arazorik larriena?

Errepresioa.

Zein galdera nahi zenuke nik zuri egitea?

Zein musika moeta gustatzen zaidan.

Nolako musika gustatzen zaizu?

Kontrairo aparte, reggae, ska eta horrelakoak. Eta, oro har, edozein musika klase: klasikoa eta beste.

Miel Anjel Elustondo

Floridako altxorra!
35

adaka M
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

ZUAZAKO altxorren bila



Z

uazako irlan egun batzuk igarotzeak mendiko zein hondartzako abantailaz

gozatzea ahalbidetzen du. Maiatzaren 1etik irailaren 30era bitartean ikastegi, aisialdirako talde, kirol talde eta herri-taldeetako 7 urtetik gorako gazteek Ullibarriko urtegian kokaturiko uhartea betetzen dute. Besteak beste, Windsurf, arrauna, optimist, piraguismo eta pedaletan aritu ahal izatea da toki honek eskaintzen dituen aukera erakargarrienak, natura bere baitan bizitzeko aukerarekin batera. Untxien Irla izenarekin ere ezagutzen den hori jadanik beteta dago uda osorako, azkenengo urteetan bezala. Eskari handiak bultzatuta, arduradunek udalekua bi edo hiru hilabete gehiago irekita egotea proposatu dute hurrengo urteei begira, baina aurten dagoeneko tokirik ez dugunok, jai daukagu Zuazan.



VITORIA KLUB Nautikoan ontzia hartu orduko, Zuazara datozen gazteak abentura zoragarria bizitzen hasiak dira. Pirata eta korsarioen ametsak gauzatzen doaz irlara hurbildu ahala. Altxorra ere egon badago, naturan bizitzearena hain zuzen ere. "Guretzat hirietako bizimodutik naturan bizitzera dagoen kontrasteari eustea da garrantzitsuena. Gazteak



dendetan egiten dute lo, lurra zementozkoa da baina dendak mantendu izan ditugu. Horrela euria egin edo haizea dabilenean gorabehera horiek askoz ere sakonago bizitzen dituzte. Ez dago argirik eta sua egiten dugu gauez. Honek erakargarria egiten du irla bera eta aldi berean esperientzia atsegina eskaintzen du", azaltzen du Koldo Gerrikaetxebarriak Zuazako arduradunak.

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

*Tu Invernadero
Zure Lore Sortak*

ALDABE 6 BEHEA

tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

Maiatzaren 1ean hasi zen aurtengo denboraldia eta ekainaren amaiera arte Hego eta Ipar Euskal Herriko ikastetxetako gazteak egun batzuk igaroko dituzte bertan. Uztailean euskarazko bi txanda egongo dira eta abuztuaren lehendabiziko hamabostaldian gaztelarazkoa. Abuztuko bigarren erdian Espainiatik etorritako gazteei eskaintzen zaie untxien uhartea ezagutzeko aukera. Irailean kanpaina berezia egiten da Arabako ikastegientzako eta hilaren azken bi astetan zehar bertako gazte talde hainbat izango dira hurbilduko direnak. "Zorionez, dena bete-beteta dago".

1983az geroztik

Zuazan egindako lehen udalekua 1983an izan zen. Orduan hamabost egun besterik ez ziren izan, hurrengo urtean hilabete osoa eta handik urtebetera hilabete t'ardi. "Zuaza poliki-poliki eratzen joan da. Hasiera batean hau mendia zen soilik eta pixkanaka-pixkanaka azpiegitura osatuz joan gara egun dagoen egoerara heldu arte".

Zuazak 50 hektarea inguru ditu eta hedadura honetan dauden zelai, pinudi eta hariztien artean, besteak beste, komunak, erizaindegia, jantokia, sukaldea eta hamar kanpamentu daude. Kanpamentu bakoitzean lo egiteko lau denda, begira-

leentzako beste bat eta tailerrak egiteko txoko bat egoten da.

Irlak eskaintzen dituen aukera guztien artean ur-ekintzak dira bisitarien gogokoenak. "Guztira ordu t'erdiko lau saio daude egunero, bi goizez eta beste bi arratsalde. Saio bakoitzeko 20-24 haur sartzen ditugu eta bi kirol aditu daude saio bakoitzean".

Piraguismoa, arrauna, windsurf edo bestelako modalitatetan aritzeko grina horren handia da, ezen euria egiten duenean ere ekintzak berdin-berdin egin behar izaten direla. "Orain hiruzpalau

urte, euria eta hotza egiten zuela-eta uretako ekintzak bertan behera uztea erabaki genuenean, haurrak manifestaldian atera ziren. Halakoetan, uretan aritzeko daukaten gogoia are handiagoa da. Ez dute ordu t'erdia beteko baina bai hogeit bat minutu, eta inoiz baino pozago".

Robinson Crusoe eta guzti

Koldo Gerrikaetxebarria Zuazako udalekuen zuzendaria da 1987az geroztik. Maiatza baino lehen dena prest egon dadin arduratzen da eta urria heldutakoan dena berriro desmuntatzen du beste lankide batzurekin batera. Baina Koldok ez du orduan bere egonaldia amaitzen, Zuazan bertan bizi baita lau urtetik hona. "Zoragarria da bertan bakarrik bizitzea. Oiloak bezala egiten dut: seiretarako etxeratu eta goizean goiz jaiki. Dextente aldatzen da bizitza. Gustatu egin behar zaizu, hirikoa baldin bazara zailagoa da", adierazten du muxikar honek. "Oso bizkor joaten zait urtea. Guk hau desmuntatzen dugunerako urria amaitu da eta ondoren oporrak hartzen ditut. Urte berriarekin batera berriro dena prestatzeko dinamikan sartzen zara eta konturatu orduko urtea pasatu da".

Edu Lopez de Luzuriaga



Zenbait
rehetasunek
biziki
jazten
dute

Ducci D96 Eredua - 7.550 Pta.

Begiradarekin liluratzeko diseinuak. Zure estiloari doazkion moduak. punta puntako modaren xarma.

Multiopticasen Ducci '96ko, bilduma eksklusiboa da.

Eguzki lente graduatuekin, zure beharren arabera.

Hurbil zaitetz eta ezagutu ezazu.

Gure mailegu txartelarekin ordain ezazu **3 bilabetez kargurik gabe**

MENDIA OPTICA
DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Ama Zuriaren Plaza / Olagibel 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Tramite legalak euskaraz? Teorian bai.



euskara bizitzaren arlo guztietara zabaltzen den heinean normalizazioaren bidea hartu duen seinale dela esan ohi da. Hori horrela bada Gasteizen aurrerapausu handia egin du euskarak Alfredo Perez Avilaren eskutik; berak notaritza euskaraz lantzen du.

TEORIAN, behintzat notaritzako paper guztiak euskaraz egitea posible da jadanik: testamenduak, salerosketak, maileguak... Teorian posible dela esatean legeak euskarazko jarduera baimendu arren zailtasun handiak ere jartzen dituela esan nahi da. Alfredok berak azaldu duenez, zailtasunak dira nagusi: "Euskararen normalizazioaren legeak euskara hutsezko agiriak egitea posible dela dio, baina gero...".

Notario euskaldunak ematen dituen azalpenen arabera tramiteak euskaraz egiten direnena, normaltasunak bulego barruko elkarriketaren denbora baino ez du irauten. "Nere bulegoan neu naiz euskaldun bakarra eta nik eskuz idatzitakoa beste batek transkribitu behar du, makinaz pasatu. Normala denez, idazten dena ez bada ulertzen motelago lan egiten da eta akatsak egitea errezagoa da".

Baina ez da hori dagoen arazo bakarra, zeren eta notaritza prozesuak pertsona eta erakunde askoren partaidetza eskatzen baitu. Alfredoren bulegoan landutako dokumentuek erregistro, udal, diputazio eta abokatuen eskuetatik igaro behardute. "Administrazioaren euskalduntze prozesuak porrot egin du, agiri hauei azken oneritzia eman behar dieten pertsonak ez dira euskaldunak, normalean ez behintzat. Beraz, azken sinadura jasotzeko, dokumentua itzuli egin behar da".

bar * restaurant
albéniz
GASTEIZ

Portal
del
Rey 9



kafetegia
taberna

ALDAPA

SAN VICENTE
aldapa

GASTEIZ

vitrales



MIKEL
DELIKA

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

Administrazioak itzultzaileak izan ohi ditu bere langileen artean baina ez dira asko eta lanez gainezka daude. "Dokumentu bat eramaten denean itzuli egiten dute baina hamar eramanez gero, asteak itxoin behar dituzu. Hor mozten da bidea, etena sortzen da; euskarazko agiri batek ez du bide normala jarraitzen". Gasteizen edo Bergaran, berdin.

Ondarrun hasi zen Alfredo notaritza lanak egiten eta bertan ohartu zen bere burua euskalduntzeko beharraz: "Hasi-eran itzultzaile batekin joaten nintzen bezero euskaldunekin egon behar nuenean, han jende asko elebakarra baita. Baina berehala konturatu nintzen ezin nuela horrela jarraitu". Euskaldunek zeregin ofizial eta zenbaki kontuetarako erderara jotzeko ohitura xelebrea daukatela esaten da, eta gaztelera ia ez jakin arren aurrezki kutxara joatean <<'sinco' edo 'xiete' mil pezeta>> eskatzen dituen euskaldun zaharren kasua aipatzen da adibidez. Notaritzan ere beste horren beste gertatzen omen da. Perez Avilaren iritziz "hizkuntza juridikoak ez du gehiegi laguntzen; paper ofizialak elebidunak izatea exijitzen dugun arren, gero erderazko aldea irakurtzen dugu euskarazko itzulpena latza egiten zaigulako. Arazo hori leku guztietan ikusi dut. Gasteizen hasi aurretik Ondarrun, Murgian eta Bergaran lan egin izan dut eta ez nuen hemen baino askoz dokumentu gehiago euskaraz egiten".

Alfredok dioenez egun bizi dugun egoera ez da berria Euskal Herriko historian. "Gaur egun dugun gabezia hau ez da atzo



goizeko gauza. Euskal Herrian euskara galdu aurretik ere, horrelako dokumentuak erderaz idazten ziren. Ez da euskarazko dokumentu juridikorik aurkitu. Horrek Euskal Herrian hizkuntza juridikoa ez dela inoiz garatu esan nahi du". Hizkuntza juridikoaren arrotasunak nolabaiteko beldurra ematen du eta "gertatu izan zait norbaiti mailegu bat edo salerosketa bat egiteko modua euskaraz azaldu baina gero agiriak gazteleraz egitea ulerterrezagoa delako". Gainera itzulpenaren beharra ere oztoppo da eta praktikan, "dokumentu laburrak egiten dira euskaraz, testamenduak adibidez, baina mailegu bat eskatzeko agiriak

hamalau orri inguru eskatzen ditu eta horiek itzultzea..."

Hizkuntza juridikoa garatzeko orain aukera paregabea eskain dezake unibertsitateak. "Bai horixe, itxaropena unibertsitatean euskaraz ikasten duten gazteengan jarrita daukat nik" esan du Alfredok baina oso baikor agertu gabe. "Ez dut konponbidea oso gertu ikusten. Donostian bakkrik ikasi daiteke zuzenbidea euskaraz; egoera ez dago oraindik normalizatua! Hizkuntza ulergaitza, prozesuaren motel-tasuna, euskaldundu ez den administrazioa... euskaren aurkako puntuak dira. Euskaraz egiten ditudan dokumentu luzeak leihatilan utzi ondoren, administrazioaren ere ia ziur naiz euskarazkoa hartu beharrean gaztelera itzulpena erabiltzen dutela." Egindako lanak ezertarako ez duela balio susmatzean "hau guztia, zertarako?" galdetu ohi dio Alfredok bere buruari. "Berriro ere, euskaldunei gehiegizko ahalegina eskatzen zaie trukean zerbitzu ona eskaini gabe".

Gero eta gehiago lan egiten du euskaraz Alfredok baina zerbitzua normalizatze hainbat arlotan (ordenadore programak, abokatuak, administrazioa,...) aldaketak eman behar direla dio eta horren zain dago. "Administrazioaren euskalduntze prozesuak porrot egin du, agiri hauei azken oneritzia eman behar dioten pertsonak ez dira euskaldunak, normalean ez behintzat, Euskarazko agiri batek ez du bide normala jarraitzen".

Leire Lopez de Aberasturi

**ITURRI
TABERNA**

Zapa, 57 GASTEIZ

IVAN

TABERNA

jo eta ke

**TXAPELARRI
TABERNA**

KUTXI
kalean

ONGI
ETORRI

xurru

KUTXI 103
GASTEIZ

Gasteizko Paperdenda Berria



- ⇒ 500 m²-ko paperdenda
- ⇒ Ikasmateriala
- ⇒ Opariak eta ofimatika
- ⇒ Ordenadoretan azken nobedadeak eta gainera enpresetarako eguneroko zerbitzua

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12 / 01002 Gasteiz

Agentzia matrimonialak: maitasun eskaintzak



noiz egon zara maiteminduta? Jakina baietz!

Mingaina ere tratu egiten dizun sentzazio izugarri hori ziuraski behin baino gehiagotan ezagutu duzu. Dena den, Euskadin maitasun eta ligatze kontuetan topiko asko erabiltzen ditugu. Besteak beste hurrengo lerroetan idazten dizuedan hau: Euskadin baskoak "basko zero", oso hotzak garela, alegia. Gai hauei buruz gehiago jakin nahian "aditu" batengana jo dugu. Gasteizko agentzia matrimonial bateko nagusia den Javirengana, hain zuzen ere. "Topiko hauek ez dira betetzen ez gaur egun, ezta lehenago ere. Kalera atera besterik ez duzu egin behar hori faltsua dela frogatzeko. Jendeak asko ligatzen du".

"AGENTZIA MATRIMONIAL

bat sortzea bururatu zitzaidan banandu egin nintzenean. Duela 6-7 urte hasi nintzen ideia horrekin, garai hartan bolada txar bat pasatzen ari nintzen eta. Oso bakarrik nengoen eta gauza asko galdu nituen: lagunak, emaztea... Aurten ideia praktikara eramateko aukera eduki dut eta momentuz hementxe gaude" dio Javik, Faltas Tù agentzia matrimonialeko jabeak. "Matrimonial izena erabili arren, gure agentziaren xedea ez da jendea ezkontzea. Helburua jendea kontaktatzea da, harremanetan jartzea eta ezagutzea, eta handik aurrera sortzen dena sor dadila; gu ez gara horretan sartzen" dio Javik.

Agentzia matrimonial guztiek fitxero bat izaten dute eta fitxero horretan sartzeko 25.000 pezetako inguruko kuota bat ordaindu behar izaten da. Prezioa Javiren ustez ez da garestia. "Kontuan hartu behar da hau negozio bat dela, berezi samarra behar bada baina negozioa azken finean. Hala eta guztiz ere, guk egiten duguna positiboa da, jendeari zerbitzu bat eskaintzen diogulako. Lagunak edo bikotea bilatzeko arazoak izaten dituzte zen-

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

MIKO

izozkiak

baitek eta horretan laguntzen diegu guk. Kuota ez da hilabetero ipini behar eta hasieran jarritako diru horrekin gutxienez bi zita lortuko dizkiogu. Dirua azken finean bezeroarentzat tramite bat besterik ez da, nahi duen hori lortzeko eman beharreko urratsa baino ez. Izan ere, hemen posibilitate asko izango dute gus-toko laguna aurkitzeko. Gure zerbitzuen bila datorren jendeak oso garbi du zer nahi duen: gehienak erlazio finko baten atzetik dabilta, ez denboraldiko lige baten bila”.

Lehengo zita itsu-itsuan ez egiteko eta bezeroei hain gogorra gerta dakien agenziak aurretik bi lagunekin hitzegiten du. “Hona etortzen diren pertsonak fitxan sartu baino lehen, solasalditxo bat izaten dute gurekin eta nolako pertsonak gusto-ko dituzten azaltzeko eskatzen diegu. Gero fitxeroan bilatzen dugu antzerako pertsona bat, eta deitu egiten diegu beste-arekin gelditzeko. Hemen bertan ezagut-zen dira (bulegoak taberna antzeko gelatxo bat du, bikote berriak bertan eza-gut daitezten). Etorri baino lehen azaltzen diegu besteak duen nortasuna eta konfor-me badago aurrera”.

Azken boladan horrelako agenziak ugaritzen ari dira gure artean. “San Balentin eta antzeko kontuak egun urrun geratzen zaizkigun arren, jendeak maite-mindu beharra dauka oraindik eta batzuei hau oso zaila egiten zaie duten pertsona-litateagatik, lotsagatik edo dena delakoa-gatik. Horrelakoetan hona etortzen dira aukera bat ikusten dutelako” dio Javik.



Orain artean emakume eta gizon kopuru berdina dute eta kuadrila bat ere eratu da. “Batzuk kuadrila baten bila dabilta, lagunik ez dutelako eta guk ematen diegu posibilitate hori. Duela gutxi, ama batek ere deitu zigun 18 urteko semetxoari andregaia bilatu behar geniola eskatuz, baina ezetz esan genion. Gure bezeroek 23-24 urtetik 65 urte bitartera dituzte” dio Faltas Tú agentzia matrimonialeko arduradunak.

Agentzia matrimonialek mundu bitxi bat osatzen dute Gasteizen, behintzat. Beraiekin hitz egiteko zita eskatu behar izan dugu. Hitzartutako lekuan azaldu ginen gu baina ez zen beste inor agertu. Bertan denboratxo bat eman ostean, hala-ko batean Javi etorri zen gure bila. “Egia

da diskrezio handiz eramaten ditugula gure kontuak. Ez diegu inori ematen gure helbidea aurretik telefonoz hitz egin baino lehen. Hau egiten dugu ziurtatzeko hona hurbiltzen denak benetan gure zer-bitzuak behar dituela. Horrelako kontue-tan ezin dugu jolasean ibili jendearekin. Ahalik eta fidagarritasun handiena eskai-ni behar diezu, horretarako ordaintzen dute eta”.

Diskrezioranea ulertzen dugu baina agenzian argazkirik ezin egitea ez horrenbeste. Hori dela eta, erreportai-a hau ilustratzeko, derrigorrez, marrazkiak erabili behar izan ditugu.

Karlos Fdz. de Betoño


KIROL
ELKARTEA
EUSKARRI

KIROLA *euskaraz*

Areto-futbolean edo saskibaloian jokatzeko irrikitan bazaude eta euskaraz aritu nahi baduzu deitu iezaiguzu 22 21 53 telefonora, 96-97 denboraldiari

begira areto-futbolean eta saskibaloian gizonezko eta emakumezko hainbat talde osatzeko asmotan baikara senior mailan parte hartzeko

 **Ederki**

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industriala
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



mostrongotxoak

ligatzerakoan jakin behar duzun guztia



e

guraldi eder honekin, abesti batek dioen bezala, amodioa airean dago. Non-nahi, han eta hemen, bikoteak ikusten dira zuhaitzen gerizpean txoritxoek bibolinak jotzen dituzten bitartean.

Dolce Vita-ren garai honetan, ligatzea eta bere teknikak ezagutzea funtsezkoa da. Hori bai, denbora pasatu ahala, harremanak sendotzeko eta garatzeko jokaerak aldatuz doaz. Bizitzaren beste ataletan bezala

hemen ere modak daude. Beraz, gure buruari zera galdetu diogu: zeintzuk dira gaur egunean ligatzeko teknika eraginkorrenak? Neskek ala mutilek ligatzen dute gehiago? Lige-kontuak ezagutu nahi badituzu irakur itzazu ondoko lerro hauek. Gasteizen ligatzen ospetsuak diren Umandiko mostrongotxoegana jo dugu eta, behin eta berriz erregutu ondoren, hona Umandikoez aitortu digutena.

LIGATZEKO kolonia pixka bat bota eta arropa politekin elegante-elegante jantziko nintzateke: alkandora zuri bat, galtza bakeroak eta dotore-dotore egoteko jertsei bat sorbalda gainean. Erakargarri egoteko ilea ondo orraztuko nuke. Kirolaria izanez gero, argalagoa zaudenez gehiago ligatzen da.

Asier, 11 urte

NESKEK gehiago ligatzen dute. Niri aitak erakutsi zidan nola ligatu. Oso inportantea da neskari esatea berarekin maiteminduta zaudela eta oso polita dela. Bere ondoan esertzea ere funtsezkoa da, baita zure buruaz hitzegitea ere. Zortearekin, neskak, behar bada, elkarrekin irtetzeko eskatuko dizu.

Sendoa, 11 urte

BERE AURREAN oso naturalki jokatu behar duzu, berak ezer ez susmatzeko. Dantza edo beste motatako talderen bat eratzen baduzu, berari galde iezaiozu ea apuntatu nahi den ala ez. Berarekin ahalik eta denbora gehien eman behar duzu, atsegina izan eta tontakeriak ez egin.

Rebeca, 11 urte

KOMENIGARRIA da lurrina erabiltzea, ilea orraztea eta arropa modernoa janztea. Baita ere, ikasgelan mukirik ez ateratzea, jaterakoan zaratarik ez ateratzea, txukuna izatea eta ikasle oso ona izatea. Onuragarria da, era berean, gustoko neskari amodiozko gutunak bidaltzea.

Mikel S., 11 urte

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33

GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

GASTEIZ

PIPERMINA

DENDA

arropa
eta
osagarriak



KUTXI, 81



HORRELAKO kontuetan neska dira beti hasten direnak. Ondo hitzegiteaz gain, polita izan behar duzu, bestela akabo. Filmetan ikusi dut nola ligatzen den, baina oraindik ez dut frogatu.

David A., 11 urte

LIGATZEKO ONENA, zinemara gonbidatzea eta gauza interesgarriak buruz berarekin hitz egitea da. Nire ustez neskek mutilek baino hobeto ligatzen dugu, sexiagoak garelako.

Iranzu, 11 urte

GARRANTZITSUENA da ondo hitz egitea eta jatorra izatea, sexuan bakarrik pentsatzen duen mutil edo neska batek ez du inoiz ligatuko. Nire ligatzeko era, nere amak azaldu zidana, horrelakoa da: neskari zita bat eskatzea eta etxera gonbidatzea pelikula bat ikusteko edo hitz egiteko.

David F., 11 urte

NORBAIT nire gustokoa baldin bada normal portatuko naiz, bestela berehala konturatuko da. Ez nioke eskutizik bidaliko, aurpegira esango nioke berarekin gustatuta nagoela. Gainera, mutilek gehiago ligatzen dutela uste dut. Hori garbi ikusten da nire ikasgelan, mutilek gure atzetik dabilzalako. Nahiko "pelmak" dira.

Izaro, 10 urte

NESKEK gehiago ligatzen dute, arropa politagoak dauzkatalako eta ondo prestatzen direlako.

Andoni, 10 urte

LIGATZEKO jatorra, normala, ez harroputza eta polita izan behar duzu. Eta neskek gehiago ligatzen dute mutilek oso "lotsatiak" direlako.

Alex, 10 urte

LIGATZEKO neskarengana joan, amodiozko poema bat errezitatu eta bukatzerakoan larrosa bat oparitzen diozu. Ondoren, belaunikatu eta eskua eskatzen diozu.

Gorka, 10 urte

GUTUN anonimoak bidaltzea teknika onena da. Azkenean nor zaren esaten diozu. Teknika paregabe hau nik asmatu dut.

Usue, 10 urte

ONDO JANTZI, gorra bat jarri eta hor daukazu! Bestela, bere aurrean saskibaloira jolastu eta hor daukazu!

Mikel C., 11 urte



Umeak zaintzen ditugu

GAUEZ

GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42

Esther 27 84 57
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Maidar 24 90 62
Arrate 25 64 01 (ostegun eta ostiraletan)



ASTEBURUAN

Oihana 25 30 35
Aintzane 27 09 64
Iratxe 24 51 81
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28
Leire 23 12 23
Maidar 24 90 62

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Maidar 24 90 62
Belen 13 65 10
Monica 13 86 40
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korrieria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfnoa: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia


KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

GASTEIZTAR GAZTEAK MUSIKA IPINTZEN DIE IRUDIEI

Bingen Mendizabal: ZINEA vs MUSIKA



Bingen, ikasi duzuna baliagarria izan da zure lanerako?

Bai, ikasi dudan guztia baliagarria izan da, batez ere zinerako konposatzeko orduan. Uste dut formazio bat izatea garrantzitsua dela. Ona da, orobat, denetarik jotzea, edozein motako musika, eta zenbait eta zabalagoa izan orduan eta hobe.

Filmetako musika konposatzen Juanma Bajo Ulloari esker hasi zinen?

Bai, horrela da. Nik ez nuen inoiz horretan pentsatu... Zinea gustatzen zitzaidan, zinemara asko joaten nintzen, baina beste edozein pertsona bezala. Niri benetan gustatzen zitzaidana musika zen. Egun batean Juanmarekin lan egiteko aukera sortu zitzaidan eta gogo handiz ekin nion erronka berriari. "La Madre Muerta" filmeak, gainera, ospe handia izan zuen eta ondoren lan berriak egiteko eskaintzak izan nituen. Madriletik deitzen hasi zitzaizkidan...

Nola definituko zenuke zure burua: musikari, konpositore edo filmetako soinuen egile?

Beno, nik -pentsakor jarri da- lan gehien musikari gisa egin dut, nahiz eta beste gauza batzuk ere egin... Baina, orain, filmeei musika jartzen zentratuta nago.

filme-soinu bat ezagun egiteko beharrezkoa da telesaila edo filmea arrakastatsua izatea?

Badaude ospe handirik izan ez duten filmeak baina niretzat esanahi berezia dutenak. Hala ere, normalean filme-

O

rain dela 34 urte jaiotako gazteitar honek txikitatik musikarekin lotura estua izan zuen: 8 urterekin hasi zen, eta denboralditxo batean alde batera utzi ondoren, 16 urterekin berriro ekin zien musika ikasketei. Bere irakasleen artean Carmelo Bernaola ospetsua aipa dezakegu.

Gazte garaian, Nahiko eta Hertzainak bezalako talde ezagunetan aritu zen,

besteak beste. Nahiz eta karrera bukatu gabe duen bera biolinjolea da eta horrez gain armonia, kontrapuntoa, eta konposaketa ere ikasi zituen.

Geroago zinemaren munduan sartu zen eta pelikuletako soinuak egiten hasi zen, musika eta zinea uztartuz. Beraz, Bingen Mendizabalek Gasteizen duen estudioa joan gara musikari honi buruz zerbait gehiago ezagutzeko.



zure egoitza berria Lejarreta kalean

HEGOALDE

euskaltegia

Jose Lejarreta, 9 behea
tfnoa 28 41 96 01003 GASTEIZ

TXUSTA

TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

soinu batek ospea izateko, filmeak ere ondo joan behar du. Oso zaila da filmea txarra atera eta musika ondo joatea. Normalean elkarrekin doaz.

Egin dituzun lanen artean zein azpimarratuko zenituzke?

Gehien gustatzen zaizkidan lanak lau dira: "La Madre Muerta", "La Regenta", "Extasis" eta "Cachito".

Zertan ari zara orain?

Peruko pelikula baterako musika egiten ari naiz, "Bajo la piel" izenekoa. Francisco Lanbardirena da, Hegoamerikako "thriller" bat da.

Azal egiguzu zein prozesu jarraitzen duzun filme bati musika ipintzeko?

Lehenengo zuzendari edo produktorearekin hitz egiten dugu pelikularen nondik-norakoak azaltzeko. Gutxi gora-behera nolako musika nahi duten ideia bat hatzen dugu eta geroago

gidoia bidaltzen digute. Ondoren muntaia zatiak bidaltzen dizkigute eta nik horiekin lan egiten dut. Gero, azken muntaian musika guztiak sinkronizatu behar dira, ideia guztiak bildu eta partiturak egiten dira grabatzera joan aurretik. Dena bukatu ondoren Madrilera eramaten dugu eta pelikularekin bat egiten da.

Zinean musikak garrantzi handiagoa izan behar luke?

Agian bai, hemendik kanpo indar gehiago duen arloa da, nazioarte mailan batez ere. Hala ere, orain filme-soinuak gero eta irteera gehiago dute CD formatoan. Gainera, gero eta gehiago eta hobeto egiten direla uste dut. Horrez gain filme-soinuak erosten dituen publikoa ere sortu da, normalean kolezionistak izaten dira.

"Extasis" eta "Cachito" filmeetako soinuak Gasteizen egin dituzue, zer dago horren atzean?

Nahiko zaila den arren azpiegitura bat sortu dugu hemen. Oso zaila dela esan dut zeren zinearen industria guztia Madrilen kokatzen baita. Horregatik zaila izaten da hiriburutik kanpo atera eta grabaketa eta muntaiak egitea. Dena den, hemen bageneukan Jesus Guridi orkestra eta beraiekin egin genuen "La Regenta" telesailaren musika.

Horretaz gain badugu Digital Biko estudioa, eta bi elementu horietaz baliatuz hasi ginen grabatzen eta nahasketak egiten...

Gainera Digital Bikokoek estudioa haundituko dute. Honekin azpiegitura bat sortu dugu lan egin ahal izateko. Momentuz, lau filme-soinu egin ditut orkestarekin: "Nirekin", "La Regenta", "Extasis" eta "Cachito"; eta Paco Ibañezekin egindako lana, Jose Luis Cuedaren "Así en la tierra como en el cielo" prestigioa hartzen ari da.

Uste duzu horrelako proiektu bat aurrera atera daitekeela Gasteiz bezalako hiri batean?

Ondo legoke, niri izugarri gustatzen zait ideia hori. Hemen badago horrelako gauzak egiteko gai den jendea. Jende hori zinera hurbilduko balitz filme-soinu asko graba litezke hemen.

Zer eduki behar du filme-soinu batek



ona izateko?

Filme bakoitza desberdina da, baina orokorrean uste dut musikak pelikularen batera joan behar duela. Musika ez da aparte doan gauza bat. Filmearen mezua ulertu eta mezu hori transmititzen lagundu behar du, pertsonalitatea eduki behar du.

Nola ikusten duzu Gasteizen, orokorrean egiten den musika, eta hemen egiten diren pelikulak?

Musikari dagokionez oso ondo ikusten dut. Orain sortu den tabernen zirkuitoa oso interesgarria iruditzen zait eta insituzioek ere bultzatu beharko lukete hori. Euskadiko Orkestak hemen jotzea ona da baina besteak ere lagundu egin behar dira.

Zinemari dagokionez, berriz, gero eta zaletasun gehiago dagoela uste dut. Agian Juanma Bajo Ulloaren eragina izan da.

Eta hemendik aurrera zeintzuk dira zure proiektuak?

Proiektu batzuk badituz Juanma Bajo Ulloaren hirugarren filmea, Air-Bag izenekoa, esaterako. Bestalde, Enrique Urbizurekin Atxagaren azken liburuaren zinemarako bertsioa egiteko negoziatzen ari gara eta urte amaierarako Josu Zabala, Igor Elortza eta Unai Ituriagarekin Basaurin antolatzen den ihardunaldi batzuetan ikuskizun bat egingo dugu Drogasi buruz.

David Alvez



Filmeren bat:

"Bajo el peso de la ley"

Filme-soinuren bat:

Analisis Final filmekoa

Aktorea:

Harvey Keitel

Aktoresa:

Victoria Abril

Konpositorea:

Mozart

Filme-soinuren bateko abestia:

"Salto al vacío" filmearen azkena: Smashing Pumpkins-ena

Noren pelikulari egingo zenioke musika:

Polanskyren edozeini.

IZABERRA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

Aragoi etxea: gure hizkuntza ez dugu defendatu

Oporretara Aragoira joan eta euskaldun pilo batekin topo egitea ez da batere harritzekoa izaten. Izan ere, euskaldunok joera handia dugu eskiatu, mendiak igo edota turismoa egiteko Aragoi aldera jotzeko. Baina badaude herrialde honi buruzko beste gauza ugari guretzat ezezagunak direnak. Horregatik, bada, jakinminez abiatu gara Gasteizko Aragoiko Etxera eta Antonio Gaspar presidentearekin hizketan egon gara.



“Guk ere hizkuntza bat dugu, Fabla, baina ez dugu defendatu”

ARABAN EZ DAUDE aragoiar asko, 320 familia inguru, gehienak Gasteizen. Hala ere, orain dela 10 urte gutxi gora-behera, beren ohiturak ez galtzeko eta Gasteizen bizi ziren aragoiarren arteko harramenak indartzeko asmoz Aragoiko Etxea osatu zuten. “Hasieran bazkide batek zeukan departamentu batean biltzen ginen. Bertan urte bat pasa eta gero Gasteizko Ibilbidean dagoen taberna batera abiatu ginen, han tabernaren atzealdean, leku bat utzi baitziguten.” esaten digu Antoniok.

Orain arte bisitatuko ditugun Etxeak desberdinak ziren. Aragoikoak ez dauka zentrorik, tabernakoek utzitako lekua erabiltzen dute beren ekintzak aurrera eramateko. Dena den, hilabete honetan, uztaillean, ospa egingo dute hemendik. Oraindik ez dakite nora joango diren, baina dagoeneko leku aproposago bat bilatzeko lehen negoziaketak egin dituzte.

Leku eza eta diru iturri eskasak eragin handi du antolatzen dituzten ekintzetan. Diru kontuei buruz Antoniok argi hitz egin digu: “Guk orain arte gauza asko egin ditugu eta gero eta gehiago egiten saiatzen gara, baina zentro guztiek daukagun

IRUSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

H I R O U A K
J A T E T X E A
Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ



arazoa diru iturriena da. Beti subentzioekin gabiltza eta bazkideek jartzen dugunarekin. Aurrekontua guztia kultur ekin-tzetan erretzen dugu”.

Hemen dauden aragoiarrek denbora dexente daramate gure hirian eta guztiz barneratuak sentitzen dira “kontzekuentzia guztiekin”. Horrexegaitik saiatzen dira beren kultura eta ohiturak Gasteizera ekartzen. “Gasteizko biztanleek eta ingurukoek ezagut ditzaten, erakusketak, lehiaketak, hitzaldiak eta abar antolatzen ditugu, baita Aragoira ibilbideak edo Euskal Herrian zehar irteerak ere antolatzen ditugu”.

Orain arte egindakoarekin konforme dira baina badute gogorik zerbait gehiago egiteko “beti nahi baituzu daukazuna baino gehiago” dio Antoniok.

Urtean zehar besteak baino garrantzi haundiago duten egunak, bi izaten dira aragoikoentzat; alde batetik, San Jorge eguna Aragoiko patroia delako, eta bestetik, nola ez, urriaren 12an El Pilar eguna. “Egun hauetan normalean Jota talde bat ekartzen dugu baina, azkenaldian, diru eza dela eta ezinezkoa izan zaigu”.

Horiez gain beste festa inportante bat Autonomi Eguna izaten da. Joan den hilean ospatu zen Mendizorrotzan eta bertan Etxe guztiek beren lurraldeetako ezaugarri eta ohiturak erakutsi zituzten.

Gastromiari dagokionez, Euskal Herria bezala oso janari gogorra dute Aragoi aldean eta besteak beste, txingarra tomaterekin, migak lukainarekin edota Salmorrajoko arraultzak aipatu dizkigu Antoniok.

Bazkiden kontua.

Bazkideak, etxe guztietan bezala, oso garrantzitsuak dira. Aragoikoan ez dira asko ezta gutxi ere. Denetara 120 familia inguru. Baina orain dela urte batzuk kopuru honek behera egin zuen. Zergatik galdetuko duzu, bada, arrazoi oso bitxia kontatu digu Antoniok: “Azukarera itxi zutenean 13 edo 14 familia joan egin ziren eta 100 familia geratu ginen. Baina, orain, berriz, bazkide berriak egiten ari gara, urtero 2 edo 3 familia gehitzen zaizkigu”.

Azukareran Aragoitik etorritako nahiko jende zegoen. Sdd. Gral. Azukarera

“Azukarera itxi zutenean Aragoiko 14 familiak alde egin zuten”

1908an sortua, oso industria zaharra eta garrantzitsua zen. “Orduan gu hona ekarri egiten gintuzten. Hau da, gu ez gendozen lan bila baizik eta enpresak, gure kalitate-agatik, leku batera edo bestera bidaltzen gintuen” adierazten digu Antoniok. “Orain hemen gaudenak, ordea, hiria gustokoa dugulako gaude. Nik adibidez, hogeit urte baino gehiago daramatzat hemen”.

Euskal Herrian.

Aragoiar asko daude Euskal Herrian, gehienak lan egitera etorriak. Izan ere, orain dela urte batzuk Zaragozan ikastetxe oso garrantzitsuak omen zeuden baina lan gutxi. Hala eta guztiz ere, Gasteizen eta Bilbon bakarrik dute Aragoiko Etxea. “Bilbokoa, oso zaharra eta haundia da baina ez dago besterik”. Alderantziz, ordea, Antoniok esan digunez nafarrekin badute, adibidez, beren etxea Zaragozan.

Euskadin zentro gutxi eduki arren munduan zehar hainbat Etxe dituzte Argentinan, Kalifornian, Texasen, Frantzian... besteak beste, eta guztien artean Munduko Federazioa osatzen dute.

Amaitzeko hizkuntzei buruz hitz egin dugu, bai euskeraren inguruan, baita Aragoan duten hizkuntzaz ere, fabla hizkuntzaz hain zuzen ere. “Nik pentsatzen dut bakoitzak berea defendatu behar duela. Geuk ere gure hizkuntza dugu, oso zaharra da, baina gertatzen dena zera da: hemen euskera bultzatua izan den bitartean, eta oso ondo deritzot horri, Aragoan - Antonio pentsakor ipintzen da desberdinak garelá”.

David Alvez

BAR KLAKÉ
KVTXA, 2
TFN. 143883
GASTEIZ

VIAJES ARABA

ARABA BIDAIK

Pirineo ekologikoak, 8 egun • 26.000
Bailarak, lakuak eta herriskak
7 egun • 35.900
Ibiza 9 egun • 34.700
Habana Varadero 8 egun • 120.700
Paris 6 egun • 31.200
Istanbul 8 egun • 53.900

Kuba zaharra 8 egun • 136.800
Estatu Batuak, Kanada 15 egun • 197.800
Honduras, Guatemala 12 egun • 204.800
Peru 15 egun • 278.300
Europako Ekialdea 12 egun • 59.500 *
Eskandinabia Iparreko lurmuturra • 176.600 *
* HEGAZKINEZ

Siervas de Jesús 2 (28 16 88 / 28 19 33)
Abrevadero (Frantzia kalearen ondoan) 28 21 88
GASTEIZ
Zumalakarregi hiribidea, 48 (672 28 42) LAUDIO

Deportivo Alavesen

Gregorio Rojo:

Gonzalo Anton nire laguna zela uste nuen

Gregorio Rojo
Mendizorrotzako atzeko atletik irten da?

Ez dut uste. Nire iritziz, zuzen jokatu dut. Handik irten beharrean ikusi nuen nire burua eta denborak esango du ondo ala gaizki egin nuen alde egitean. Hala ere, gertatutakoa ahaztu eta Deportivo Alavesi onena opa behar diot. Gonzalo Antonen filosofia eta nirea guztiz ezberdinak dira eta hortxe dago gakoa. Deportivo Alavesek arabar guztiona izan behar du, hau da, ezin dugu gizon baten eskuetan utzi.

Gonzalo Anton zure laguna zen. Lagun hori galdu duzu?

Nire laguna zela uste nuen, baina ez zen. Beraz ez dut ezer galdu. Ziria sartu didala esan genezake. Familiakoak beti daude zurekin, lagun batzuk, ordea, ez.

Gonzalo Anton goitiki behera aldatzen ari da joan den urteko taldea. Antza denez, ekipo gaztea egin nahi dute...

Arabako futbolaren ardatza Deportivo Alaves

izatea gustatuko litzaidake. Horretarako, Pablo bezalako jokalaria gasteiztarrek Alavesen jokatu beharko lukete. Eta ez Pablo bakarrik, lehen mailan ari diren beste arabar batzuek ere bai, Baroja, Valverde edota Ritxi Mendiguren... esaterako. Bestalde, Oscar erdilariak gurekin jarraitu behar zuen eta alde egiten utzi dute. Dena den, hori ez da zuzendaritza taldearen lana entrenatzailearena baizik.

Egun noren esku dago Deportivo Alaves?

Azken hitza herriak eduki behar bazuen ere, buruzagi batzuren esku dago. Ni ez nago horrekin ados, baina... Deportivo Alavesek arabar guztiok elkartzen gaituela aintzakotzat hartu beharko genuke.

Juan Arregi presidenteak hutsik egin dizu?

Inola ere ez. Juan Arregi Deportivo Alavesen lehenaldia, orainaldia eta etorkizuna da. Egia da, bere azken erabakia ez dela nire gustokoa izan baina errespetatzen dut.

Mendizorrotzako buruen eta kazetarion arteko harremanak ez dira oso erosoak. Deportivo Alaves ez al da itxiegia?


Bai, hala da, oso presidentzialista delako. Zuzendaritza taldean egon naizenean, hori aldatzen saiatu naiz ahal izan dudaneurrian. Orain oposiziotik borrokatu beharko dut.

Deportivo Alaves arabarron ondarea den arren, egun agintari bakan batzuren esku dagoela aitortu diguzu. Horren aurrean, guztiok ez gara errudunak?

Horixe izan da nire mezua azken hilabeteotan. Antza denez, baten batek ez du hori ulertu eta beste modu batez jokatu du.

Aurrerantzean Gregorio Rojoren berri izango duzu?

Lagundu behar badut, lagunduko dut. Hori bai, zerbait gustatzen ez bazait zorrotza izango naiz. Hitz bitan esateko, arabarron eskubideak defendituko ditut beti.



“ **Ezin dugu Deportivo Alaves gizon bakar baten eskuetan utzi** ”
Gregorio Rojo



Astrologi aholkularitza
Kinol eta terapia-masajea
Bete-beteko terapiak
Astrogafia
Eneflexoterapia
Frastanoak

Gasteizko hiribidea 89 (atzealdea)
Tfnoak: 24 26 71 eta 22 93 29



Xabier

musika ona
eta giro
ezinhobeak **taberna**
Kutxileria 23

bulegoetako tirabirak

Alfonso Arriola: benetako proiektu bakarra Gonzalo Antonena zen

FUTBOLA EZ DA bakarrik hamaika gizon eta baloi bat. Horren atzetik taldeen buruak egoten dira, enpresa gizonak gehienetan. Eta nola ez, Mendizorrotzan ere badira horrelakoak. Azken hilabeteotan Deportivo Alaveseko sukaldean ez dira tirabirak falta izan. Etorrizunari begira, bi proiektu eta bi gizon genituen; batetik, Gregorio Rojo, bestetik, Gonzalo Anton. Azkenik, beti bezalaxe, irabazlea bat izan da: Gonzalo Anton alegia.

Ismael Diaz de Mendibil

Datorren urteari begira zein da Deportivo Alavesen helburua?

Helburuak bi dira. Batetik, taldearen kirol ondarea indartu nahi da, horretarako, aurtengo fitxaketa berriez gain, hirugarren mailako jokalaria batzuk ere talde nagusira igo nahi ditugu. Apostua arriskutsua den arren, etorkizunari begira egiten dugu. Bestetik, oreka ekonomikoa lortzea daukagu helburu.

Fitxaketak aipatu dituzu. Etorri berriak ez dira oso ezagunak, datozen asteetan berriak ez dira faltako...

Gaur bertan Bruno Alicarte frantsesa fitxatu dugu. Camacho entrenatzaileak Sevillara eramane nahi zuen, baina azkenik Gasteizen izango da. Horren atzean beste batzuk etorriko dira.

“**Lagun bat edo beste galdu dut**”
Alfonso Arriola

Alfonso Arriola Deportivo Alavesen bozeramalea da. Mendizorrotzako taldea ez da itxiegia?

Taldearen antolamenduak baldintzatzen du hori. Gainera, batzuetan beharrezkoa da, komunikabideek fitxaketa bat baino gehiago pikutara bidali dezaketeelako. Hala eta guztiz ere, gehienetan gardena izan beharra daukagu, taldea guztiona baita.

Azken hilabeteotan lagun bat galdu duzu?

Bat edo beste galdu dut, baina horiek ez ziren lagunminak. Elkarte Anonimo bihurtzeko joan-etorrietan ez da maltzurkeriarik izan. Gainera, zorionez, Deportivo Alaves horren guztiaren gainean dago.

Hala ere, ez al dira Gregorio Rojo eta Pedro Foronda atzeko atetik irten?

Nahi zuten lekutik irten dira Rojo eta Foronda.

Euren ustetan, ondo jokatu dute. Alabaina, benetako proiektu bakarra Gonzalo Antonena zen, etorkizunari begira tinkoa da eta.


Oso ondo, baina noren esku geratzen da Deportivo Alaves?

Akziodunen esku dago. Akzioduna izateko aukera guztiok izan dugula gogoratu behar dut. Hori bai, zuzendaritza talde honek badaki argi eta garbi zein den Deportivo Alaveseko presidentea, Juan Arregi alegia.

Akziodunen zerrendari so eginez gero ordea, Gonzalo Anton dugu jaun eta jabe...

Arabar bakan batzuek hartu dituzte akzioak. Edo zaletuek enpresa gizonen eskuetan utzi nahi izan dute taldea, edota ez dugu Deportivo Alaves aintzakotzat hartzen. Zorionez, dirua agertu da azkenik, bestela akabo.

Ismael Dz. de Mendibil



**GASTEIZKO
HERRIKO
TABERNAK**



OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier
Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

'Bildumazaleentzako materialea'

Crines



KONTAKTUA (943) 34. 00. 61. (Pablo)

Oso berri eskas jaso

dugu Crines taldeaz 92ko "Ha Sido Maravilloso Cariño" izeneko lp-a kaleratu zutenetik. Gaur egun, lau urte geroago, bigarrena, "Material para Coleccionistas", dendetan topa dezakegu, eta bostekote gasteiztarra, berriz, karreteran. Rock nagusi, rock Crinesen erara.

Suposatzen dut zuen bi grabazioak alden duzuten lau urte hauetan asko izan direla sortu ahal izan dituzuen abestiak, asko baita ere ahantzitakoak, grabatu ez dituzuenak.

Asko. Taldean lau konposatzaile garela kontutan hartu beharko duzu, lau buru ezberdin, eta ondorioz, zabala izaten da eskuartearen izaten dugun material berria.

Zuzenekoek eta entzulegoaren erantzunak lagunduko zaituztete beharrezko abestiak aukeratzen, ideiak azaltzen.

Bai, baina zuzeneko guztiak ez

dira berdinak. Aukeratzen dugun erreperitorioa aldatzen da kontzertu motaren arabera. Agerraldien ezaugarriek behartzen gaituzte abesti batzu hartzen eta beste batzu lagatzen. Kartelaren burua ala teloneroa izatea ez ez da gauza bera. Bigarren kasuan gaizki ibiltzen gara denboraz, eta horrexegatik "kaña"-ri ekiten diogu. Azkar eta zuzena.

Eta telonero moduan, Leamonheads, Loquillo edota 4 non Blondes talde ospetsuen ondoan jo izan duzue.

Bai, eta ez da batere erraza hain ezagunak diren taldeen kontzertuak berotzen saiatzea. Dena den gehienetan harrera ona izan dugu, inoiz ez gara jaitsi eskenatokitik txistu artean.

Eta aurreneko galderei bueltatuz, zein erizpide duzue kanta bat aukeratu ala uzteko?

Lehenengoz aurreaukeraketa bat egiten dugu, orduan lekurik ez duten abestiak beste batean sartuko direla pentsatuz. Gerorxeago, gu eta

ALISAS
TABERNA
KUPU 591

asmo ederrak
aire zabalean

la calle

taberna

Dultzaina, 10



HARATEGIA
ALDANONDO

P. Ubis Plaza
tfnoa. 25 46 08

01003 GASTEIZ

produktuaren artean erabakitzen dugu zeintzu grabatuko ditugun eta zeintzuek itxaron beharko dute.

Lau konposatzaile ezberdin izan arren, azkenengo emaitzak oso homogeenak suertatzen dira.

Bai, horrelaxe gertatzen da. Abestiak lantzen ditugu gure tankerara moldatu arte, lortu nahi dugun Crines taldearen berezko estilora hain zuzen ere.

Bi izen aipatuko dizkizuet, zeuek euretz berba egin dezazuen.

Los Rodriguez.

Gustatzen zaizkigu, baina ez dira bakarrak. Behin baino gehiagotan esan da euren estiloa jarraitzen dugula, hala ere haiek badute ezaugarri inportante bat geuk lantzen ez duguna: mestizaia hain zuzen.

The Rolling Stones.

Gure erreferentzi puntu nagusia dira, onenak. Euren garai guztiak maitatzen ditugu, Baina

kontuz!, gu ez gara The Rolling Stones ezta Los Rodriguez ere. Crines, besterik ez.

Zuen lehenengo eta bigarren diskaren hitzak gonparatuz ezberdintasun handiak igarri ahal izan ditugu.

Bai, hitzari dagokionez gogor jo dugu aurrerantz. Hasieran askoz eraginberagoak ginen, kanpotik zetorkigun erritmoari jarraitzen genion. Orain hazi gara, bestalde, lojiko da, entzulegoarekin gertatu den bezalaxe. Uste dugu jendea gero eta kritikoagoa dela testuekin.

Bigaren diska honetan guztiz askatu ditugu gure sendimentuak. Hor dituzu bada gure kritika, gogortasuna, indarra edota gure ezintasuna ere. Guzti hau poesiaz tindatzen saiatu gara, oso bistakoa ez izateko. Nik ordea, (Toño) dena argi eta garbi azalduz aritzen naiz, disimulatzea ez dut batere gogoko, zintzoa izan

nahi dut, baita intzirinatsua ere.

Hala eta guztiz ere rock 'n roll-aren topikoren batek eusten die zuen abestiei.

Halaxe da. Rock 'n roll nabarmen bati betiko topikoak lotzen dizkiogu, badakizu, neskak, tabernak, karretera.

“Material Para Coleccionistas” diskaren azala apartekoa dugu.

Tokata zahar bat hilerrian agertzen da, lore artean, Aurrerakuntzak nola akabatzen duen guk horrenbeste maitatzen dugun biniloa adierazten du.

Badaude zuen bi lanen arteko beste ezberdintasun aipagarri batzu, baina izan zeuek aipatuko dizkiguzuenok.

Lehenengo diskoa sari baten ondorioa izan zen, grabazio mailan ailegatuberriak ginen, oso eraginberak gainera. Bigarren hau askoz rockeroagoa duzue, gurekin batera hazitakoa. Javiren kitarra lanak gure estiloa gogortu du,

eta Toñín latzago eta beltzago bihurtu zaigu. Orain, gure musika konposatzerakoan hiru oinarritzko osagai bilatzen ditugu: melodia eta hitz onak erritmo sendoaren ondoan.

Eskerron asko diskan aipatzen dituzuenak.

Bai, Sergio Fencé teklista eta produktoreari. “Liba”-ren saxoari eta Jordi Pegenante kitarra konponketei, hiru hauek Loquilloarekin dabiltzanak. Hor duzue baita ere Pabloren ekimena eta Sergio Gutierrez, gure saxojole ohiaren oroitzapena.

Bakarrik al zaudete etiketaz jositako musika mundu honetan?

Ez, etiketek kalte baino ez dute egiten. Gu ez gara sartzen mobida zehatz batetan. Hor duzue gure diskoa eta atzean gu. Ez gaude bakarrik, egia esan atsegin dugu ezberdinak izatea.

Txabi Arnal Gil

EUSKARAZ BLAI

IKASTAROAK GASTEIZEN

- Uztailean eta irailean.
- 2 eta 5 ordu
- Urrats guztiak eta EGA
- Matrikula epea: ekainak 3 uztailak 24

BARNETEGIAK

- Lesaka
- Doneztebe
- Leitza
- Arbona
- Etxalar
- 3. urratsetik aurrerako urrats guztiak

HILABETEA	IRAUPENA	DATAK
UZTAILA	2 ASTE	15 • 28
UZTAILA	3 ASTE	15 • 3
ABUZTUA	3 ASTE	12 • 31
ABUZTUA	4 ASTE	5 • 31
IRAILA	2 ASTE	2 • 15
IRAILA	2 ASTE	16 • 29



Pintoreria, 74 • Tel.: 28 97 80
Zaldiaran Plaza, 16 • Tel.: 24 49 05
Errege Katolikoak, 15C • Tel.: 28 89 22 / 44
GASTEIZ



IZARRA Jatetxean



ASPALDIKO PARTEZ, hilabete honetan salbuespen bat egin eta elkarte gastronomiko batera bisita egin beharrean jatetxe batera jo dugu. Gasteiz inguruan dagoen herri batera abiatu gara, izan ere badirudi, azken boladan modan jarri direla herrietan jantokiak zabaltzea. Zuia bailaran, Bitoriano herritik Orora doan bidean, Izarra jatetxearekin topo egin dugu. Han Juanrarekin solasaldian aritu gara.

Nola sortu zen Izarra jatetxea?

Izarra jatetxea duela 3 urte sortu zen. Gurasoen baserria zen eta utzi egin zidaten. Erabaki nahiko zaila izan zen hura hartzea zeren momentu hartan Altubeko peajea lan egiten nuen. Jatetxea abian jartzeko lehengo lana utzi behar izan nuen. Ez genekien ondo ala gaizki aterako zen baina momentuz aurrera goaz eta oso pozik gainera.

Herrietan jatetxeak jartzea modan dago?

Baliteke, dena den ostalaritza bailara honetan oso hedatua dago: 2.5

kilometroko inguruan 11 jatetxe daude. Gure kasuan baserria berrereskuratu nahi genuen, eta soldata normal batekin ezinezkoa egiten zitzaigun. Orduan konponketak aurrera eramateko jatetxe bat jartzea erabaki genuen. Oraingoz oso pozik gaude, jatetxea gainera Oro baselizarako errepidearen ondoan dago, beraz, leku oso polita eta lasaia da.

Zein motatako sukaldaritza egiten duzue zuek?

Guk sukaldaritza tradizionala lantzen dugu. Asteaz zehar hona hurbiltzen direnak menua jaten dute eta ez da gauza

berririk izaten. Betiko janaria gustoko dute, plater bereziak egiten badituzu prezioan ere nabaritzen da eta hori ezin dugu egin. Asteburuetan lana diferentea izaten da. Horregatik denboraldiaren arabera, plater berriak sartzen ditugu orein edo basurde xerrak esaterako.

Berezitasunik baduzue Izarran?

Bai, bezeroen artean oso estimatua den begihaundia aipatuko nuke. Jan aurretik pikatzeko edo bigarren plater gisa jartzen dugu.

Ligatzeko asmoz datorrenari zer



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ



gomendatuko zenioke?

Espezia afrodisikoren bat, kanela adibidez. Kanela asko bai. Bikote asko etortzen dira hona eta zera gomendatuko nieke: ez asko jan eta gerokoei lekua utzi.


Gasteiztar asko hurbiltzen dira honaino?

Bai, batez ere asteburuetan, lasaitasuna eta familiarekin egoteko leku atsegin bat bilatzen dute eta. Nik uste dut horretarako jotzen dutela herrietara. Nolabait hiritik ihesean dabilta eta uda garaian areagotu egiten da joera hori. Guretzat oso sasoi gogorra izaten da, baina jendea gustora gelditzen dela ikusteak aurrera jarraitzeko animatzen gaitu.

Jatetxearen inguruko zelaian belarra mozten utzi dugu Juanra. Baserri izugarri polita du. Gustora gelditu ginatete etzanda leku zoragarri honetan, baina bueltatu beharra daukagu. Ea beste batean lasaiago etortzen garen!

Karlos Fdz de Betoño

gurutze grama



ZEHARRETARA:

1. Gure herrialdean ugaria den landarea. Bibliako pertsonaia
2. Arabako herria. Nafarroako ibilgailuetan.
3. Garaitzearen ondorio. Litro
4. Gizarte-Segurantzako sorostegi.
5. (Ald.) Lanaren Nazioarteko Erakundea. Oxigenoa.
6. (Ald.) Lutezioa. Modura, erara.
7. Krustazeo txikia. Oxigenoa.
8. Euskal sindikatu bat. Erraz. Boroa.
9. Akabo. Emakumeei deitzeko
10. Iodoa. Idiak zaintzen dituen. Lehena.



GOITIK BEHERA:

1. Ordaindu. Eguzki.
2. Lore bat.
3. Turbokompresorea. Atal
4. Erregela. Potasioa. (Ald.) Gizonezkoei deitzeko
5. Hiru obraren multzoa. Azkena.
6. Aipatu aditzaren infinitiboa. Garitik ateratzen dena
7. (Ald.) Teodororen laburpena. Garai.
8. Iota. Emakume batentzat bere gurasoen semeetako bakoitza. Ekialdea. Nitrogenoa
9. Txar ez. Ez lehen ez orain
10. Baleude. Beatrizen laburpena.

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



Musikaz Blai

IZADI taldeak Arabako Musika Taldeen Gida bat kaleratu berri du. Ia 50 orrialdetan zehar, hamarnaka talde arabarren musikagileen izenez gain, beren ezaugarri musikalak, diskografia, kontaktu telefonoak eta beste zenbait anekdota agertzen dira, musikoei beraiek kontatuta.

Oso lan txukuna da, eta ezinbestekoa ikusten dugu kontzertuak antolatzen ohi dituenarentzat, bai eta musikazale amorratu etdota arabar kulturaren alde oro ezagutu nahi dituenarentzat ere.

Berau lortzen interesik baduzu eta zelan ez badakizu, honako telefonora deituta, ziur, gauzak errazago ikusiko dituzu:

22 07 68 Gasteiz



Ah, ze uda!

Esan zizun zure amak, hilabeteak duela, egunero zertxo bait ikasi beharra dagoela abuztua ikasten igarotzea nahi ez bazenuen. Kasurik ez, eta orain zer? Egon lasai, motel! Orain baituzu aukera uda ikasten pasa, baina **euskaraz** egiteko. Guk horretan lagunduko dizuten bi aukeren berri emango dizugu.

Batetik, irakaskuntza ertaina eta unibertsitate mailako ikasketei dagokiona, zientzietako arloetan (matematika, fisika, kimika, biologia eta geologia). **26 03 54** telefonora deitu ezazu.


Bigarrenik, GEU elkartearen laguntzaz sortu den Landaburu Akademia duzu. Honakoa, BBB, UBI, OHO, edota LH-n aritu direnentzat dago zuzenduta. Interesik baduzu, dei ezazu **12 09 50** telefonora.




APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

BADATOR, BADATOR...





Arabian aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

Diputación
Foral de Alava

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



Arabako
Foru Aldundia

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

Irakasleak ondo baino hobeto ezagutzen bazaitu ...




... Jadanik ez bazarete elkarrekin ongi konpontzen...



... Ikasteko teknika guztiak erabili badituzu ...



... Metodoak huts egiten badizu...



... Atzeko tropela utzi eta aurrera jotzeko prest bazaude ...



... eta batez ere ikasketekin duzun jarrera aldatu nahi baduzu ...



Klaseak euskaraz

OHO (EGB)

BBB (BUP)

UBI (COU)

LH (FP)

Uztailetik aurrera zabalik



GEU
CENTRO DE ESTUDIOS
BABESAREKIN

Guatemala, 12 behea
(Francisco de Vitoria
Institutuaren atzealdean)

☎ 12 09 50

909 42 88 36